

**Zoin gai** landuak izan dira distantzian ? (erantzun gehiengoa segituz)

- Matematikak (ariketak, jokoak
- Euskara hizkuntza : hiztegia, entzumena-ulermena (audio, bideo, ipuin numeriko ala liburu), diktaketa, ahozko et idatzizko ekoizpena, gramatika...
- Zientziak, munduaren ezagutza
- Erhi jokoak, kantu, olerki,
- Arte plastikoak, esku lanak
- Historia
- Grafismoa, Motrizitate fina,
- Aurre irakurketa eta idazkera

**Zoin euskarri ?**

Bideo euskarriak (berek eginak) edo soinuak adierazteko :

- Manuak + agindu esplikatuak (aitamentzat), hiztegi berezia
- Powerpoint batzu manipulazioak esplikatzeko
- Ipuin eta hiztegi, erranaldi osoak
- Kantuak eta olerkiak
- Errezeta, eskulanak
- Erritualak lantzeko
- Desafio eta asmakizunak (argazkiak, lan egiteko manera desberdinak xekatzeko)

Ainitzek padlet-etan emanak dituzte. Lan plangintzak ere proposatuak izan dira.

Geihenetan berrikusketa lanak dira proposatuak, baina ere nozio berriak aurkeztuak izan dira momentu baten buruan.

Manipulazio ariketa zonbeit, ahalaz egun guzietako bizian oinarritzen direnak (eta araberako materialarekin)

Jokoak

**Lana itzulua ote zena ?**

**2. eta 3. Zikloan :**

Gehienetan, **auto xuxenketak** (nahiz eta hastapen batean denen xuxentzen hasi ziren zonbeit) :

- zonbeitak **berantago** emanez (arratsean berean, biharamunean edo berantago)
- beste batzuk **betan**, burasoen laguntzeko azalpenekin (eta itzulpena beharrez) ; kasu batean, burasoek bakarrik zuten xuxenketa fitxa.

Bideo batzu ere emanak ziren ariketen esplikazioekin.

Aitamek (batzuentzat nahieran, bestentzat beharturik) lana itzul zezaketen (skan/argazki, mailez edo ENTan), eta irakasleak zuzentzen zuen (beroan bero edo berantago), eta azalpenekin bakoitzari itzultzen.

Zonbeitek ere galdegiten zuten gauza ttipi batzu itzultzea **harremana atxikitzeko**.

Skypez lan bat (kasu batean) eramana zen euskaran.

#### **Lehen zikloan :**

Kasu batean : Haundien mailako hurrek ipuinak asmatzen (erranaldi bat + marrazki), irakasleak zuzentzen eta deneri igortzen, irakurketa landu zezaten etxean (eta lagunen berriak ukan ditzazten)

Aginduak bi hizkuntzetan emanak ziren gehienetan.

Burasoek argazkiak (batek soinu grabaketarekin galdegiten zituen ere) edo bideoak igortzen zituzten, erakasle batek ere desafioetan parte hartzen zuen, modelo gisa.

Esku lan produkzioen argazkiak ere galdeginak ziren kasu batean.

Irakasle gehienek haurrak zertan ziren jakitearen beharra azpimarratu dute.

#### **Zoin aldaketa presentzian egiten dugun lanaren arabera ?**

Gehiengo haundiarentzat aldaketa haundia izan da!!!

- **lan gehiago prestaketan :**
  - o fitxa gehiago,
  - o aginduak eta desmartzak urratsez urrats gehiago esplikatu beharrak (« ahal bezain argi eta sinple izatea ez da erretx »), gelan usaian baliatzen ditugun « mila teknika eta gauza ttipi » idatziz eman behar izan dira,
  - o manipulaketa gutiago etxean material gutiago dutelako, batzutan ere etxean eraikitze materiala azaldu behar,
  - o zuzenketak,
  - o euskarri berriak xekatu behar haurren motibatze ere,
  - o bideo, soinu (adib irakurketa grabatuak)
- **Itzulpen ainitz** emanak (gelan manipulatzeko gutiago); haurren indarrak arabera gutiago? **Hizkuntzari toki gutiago** oro har. Beldurra elebidun saila utzi nahiko dutela haurrek krisiaren ondotik beti gogoan nuen
- **Emanak ziren aktibitateak :**
  - o Berrikusketa ainitz, nozione berri guti, manipulatzeko gutti (batzuek halere, aginduak bideo batzuen bidez emanaz, materiala nola eraiki ere bai)
  - o Batzuek erhi jokoak, ipuinak, kantuak gelan bezala proposatu dituzte
  - o Ludikoagoak : joko, desafio...
- Gai batzu baztertuak (zientziak eta Geografia adib) **talde lana** ez baita posible.
- Gelan baino lan gehiago **idatziz** emana izan da. Eta preseski, **idatziaren funtzioa** haurrek hobeki ulertu dutela dio irakasle batek.
- **Ahozkoa, mintzamena** (erakasle/ikasle eta ikasle/ikasle) **eskas**. Gelan ahoz egiten ziren lan guztiak baztertuak. Salbu zonbeitek “visio” gisan pixka bat lan egin dutelarik.
- Halere, **soinuen entzumena** lantzeko aukera ona izan da (maila asko izanki gelan, ez baitu aski egiten irakasle batek). Indar gehiago egin dute irakasle zonbeitek **entzuteko euskarri** gehiago xekatzeko (haurren motibatze).

- **Burasoei esplikatzea eta hurrei esplikatzea ez da batere gauza bera.** Haurren usaietarik abiatuz, behar da burasoeri azalpen aski eman gure funtzionamenduan sar daitezen... Gainera, ez dituzte buraso guziek emanak izan diren arau guziak segitu
- Irakasleak **autonomian** dira gehiago, beraz hortarako baldintza zehatzak behar dira.
- Baina **segipen gutiago** :
  - o erantzunak idatziz, beraz ahozko guti
  - o zailtasunak jakiteko nola aintzintzen diren
  - o Desberdintasun gutiago ? ; zailago da distantzian lan desberdindua emaita, eta ez dakigu nola eremana izanen den etxean
- Haurren arteko **kooperazioa** falta ; **Harremanik ez aski hurrekin.**

### **Burasoen ihardokitzea**

- o **Orokorki, kasik denetan**, gehiengo handiak untsa segitu dute! **Harreman onak kasik denekin** (mail, sms, tel+++ , visio), lana seriooki egingo etxan gehienetan. Irakasle batek aldiz berri arrunt guti zituen familia batzuen partetik...Batzuek lana igorri (dok edo argazkien bidez), beste batzuk berri zontze, halere zontze batere (desberdina ikastetxan arabera)...
- o **Eskertu zaituztete zuen lanarentzat.** Zuek eman erritmoa (aste erdika emanez lana) preziatu dute ;
- o **Bakar batzuk xehetasunak galdetzen** (egoera hastapenean gehienik), gehienetan ez, baina **lana seriooki egingo**
- o **Irakasleak igorri** bideo eta soinuek **arraketa** dute (haren bozaren entzutea...), **testu idatziek zailtasun gehiago**, baina xehetasunak galdetzen dituzte erregulariki. **Nekezia gehiago etxetan sortzeko** galdegin **produktzioak** (salbu zontze kasutan)
- o **Aitamer helburuen hobeki esplikatzeko** aukera izan da. Besten lanak ikustearekin arranguratzen ziren zontze.
- o **“Lana ez nuen inposatzen”** ikusiz zein errealitate desberdin diren; sartzean ikusiko nork zer egin duen (batentzat)
- o Irakasleak proposatu **segipen hurbila estimatu dute**, eta erran daukute. **Denbora gehiago** pasatzen zirenen **zailtasunetan ziren haurren familiekin** (batzuetan telefonoz gidatuz).
- o **Dinamika** hastapenean azkarra, gero ez tito pixka bat (motibazioa ere bai), beste batzuentzat beste aldera preseski : harremanak azkartuz joan dira ;
- o **Internetekin arazoak**, batzutan dokumento pizuegiak igorriak, SMS-ez igorri behar lana...!
- o Segipenean senditu da **zoin familiek** zuten **garrantzia** emaiten **euskarazko irakaspeni** eta zoin ez (maleruski)
- o Arazo bakarra : **euskararena** ? (biek memento) Burasoek berek diote zaila zaiela huren lantzea (itzulpena bazutelarik ere); eskas bat sendituko dugu ;
- o **Lotura hurbilago bat sortu da familiekin** ; Dinamika berri bat sortu da ere ene lanean ; ohartzen gira lan egiten dugula ama eskolan ;
- o **Zailtasunak familietan : lan erritmoa** atxemaitea eta **haurren kontzentrazioa** mantentzea. Batzuk egun guziez deitzen haurra lanean emaitako... (erakasle bat)

## Zein hobekuntzari buruz konfinamendu hunek segitzen balu ?

### Gaien/Edukien aldetik

- Hizkuntza gehiago landu :
- Ahozkoa : **Entzumena/ulermena** landu gehiago (irradi emankizunak erabiliz gehiago, edo ipuin irakurriak, asmakizunak) eta **ahozko ekoizpena** (grabatzuz zerbait aurkeztea, errezeta bat edo joko baten esplikatzeta); antzerkitxo bat urte undarreko?
- **Fonologia urrundik** lantzeko tresna bat sortu
- Hizkuntza lantzeko (+++) : adibidez : **Astea sailka zatikatu** (egun bakotx arlo bat) : astelehenean hiztegi bideo bat (ikasteko), asteartean ipuin bat entzun, ostegunean erranaldi batzu ikasi, ostiralean galdera batzuei erantzun
- **Beste gaiak** gehiago landu : psikomotrizitate gehiago, historia, Geografia, zientziak

### Tresnen aldetik :

- **Padlet** sistema baliatu hizkuntzaren lantzeko (bainan lan asko eskatzen du, maila asko direnean)
- **Zuzenezko kurtsoak** (bideo konferentziak, talde ttipika edo mailaka) entseatu : ahozkoa lantzeko + ulertuak izan ez diren nozioen berriz hartzeko + olerki batzuen erraiteko + irakurketa batzuen egiteko; buraso taldearekin ere manera hortan talde hitzordu bat egin dezakegu
- **Bideo** gehiago proposatuz (“nozio berri gehiago izanen delako” batentzat)?
- Alde praktikoa : fotokopiatuko lan liburuxkak familiek gastu gutiago ukaiteko

### Antolaketa/programazioa

- **Egunka** berexi lana **hizkuntzan**
- **Asteka helburuak** berriz proposatuko ditut
- **Ebaluaketa** zerbaiti hasiko pentsatzen?

### Metodoen aldetik :

- Desafio gehiago (eta bideo bat errealizazioen bilduma gisa)
- Errola joko batzu distantzian
- Batzuek diote ez dutela ezer aldatuko : denbora eman dute usaien planttan emaiten (3 aste gutienez), ez dute berriz aldatuko ongi ibiltzen den zerbait...

### Ohar desberdin batzu :

- Behar bat : Harremanetan gehiago sartzea CM2koekin; zuzenezko kurtsoekin? Oro har, egin dutenaren informazioa gehiago jakitea!
- Haurrek beren arteko harremanak berriz atxeman behar dituzte, beraz nola sortu hori distantzian? (gogoeta)
- Bi irakaslek aipatu dute inkestak baten egitea aitamek zer zioten hola segitzearen proposamenarekin (eta zoin aldaketa beharrez)
- Sartzeko : liburu haundi batean emanen ditut haurren lanak eta hori eskolan baliatuko dugu